

<b>PRESTAKUNTZA ARLOA:</b>	<b>ERABILERA PLANEKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA</b>
<b>MODALITATEA:</b>	<b>AURREZ AURREKOA</b>
<b>HIZKUNTZA:</b>	<b>EUSKARA</b>

## 2. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

### INFORMAZIO OROKORRA

<b>DATAK</b>	Urriak: 8, 10, 15, 17, 22, 24	<b>IKASGELA/ TOKIA</b>	29. gela, IVAP Eusko Jaurlaritzako Donostia-San Sebastian kalea, 1 Gasteiz
<b>IRAUPENA</b>	15 ordu	<b>ORDUTEGIA</b>	9:00-11:30
<b>MATRIKULA EPEA</b>	Irailaren 21era arte	<b>ONIRITZI EPEA</b>	Urriaren 1era arte
<b>IKASLE KOPURUA</b>	15	<b>HARTZAILEAK</b>	EAEko Herri Administrazioetako langileak. Derrigorrezkoa da 1. HE gaindituta izatea.
<b>IRAKASLEA</b>	Labayru	<b>MATERIALA</b>	Ikastaroan banatuko da
<b>DISEINUA</b>	Labayru	<b>AZPIEGITURA</b>	Ordenagailua eta arbela

### ZER LORTU NAHI DA

**HELBURU OROKORRAK**

2.HEko gutuna eta iritzia emateko testuak sortzen trebatzea.  
Testu-mota horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.

**HELBURU ZEHATZAK**

Azterketaren aurkezpena egin.  
IVAPeko proben balorazio irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna.  
Eredu onak, idazteko estrategiak eta eskemak landu.  
Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin.  
Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.  
Aberastasanaren gaineko argibide batzuk eman eta ariketak egin.  
Zuzentasunari buruzko azalpenak eman: oinarrikoak diren akats larriak aipatu, aholkuak eman.

**GAITASUNAK**

Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da bere lan-esparruko eta hainbat gai ezagunei buruzko testuak sortzen dituzten, protokolo jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

## 2. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

### PROGRAMA ETA EBALUAKETA

#### METODOLOGIA

- Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna.
- Talde txikietan lan egiten saiatuko gara.

#### PROGRAMAZIOA

##### 1. saioa:

B2 mailaren deskribapen orokorra egin.  
2HEren azterketaren egitura azaldu, eta bereziki idazmen-probaren idatzien nondik norakoak.  
Iritzi-artikulu bat idatzi, azken eskola-egunean zuzentzeko.  
Galderak egin: nola ibili diren denboraz azterketa egitean, eskemarik egin duten, idazlan luzea egitean eskemaren garrantzia azpimarratu.

##### 2. saioa:

IVAPeko proben balorazio irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna.  
Idazteko prozesua azaldu: eredu onak idazteko estrategiak.  
Iritzi-artikuluaren zirriborroa nola egin azaldu eta ariketak egin.  
Etterako: gaia eman, eta horren gaineko iritzi-artikulua idazteko zirriborroa egin.

##### 3. saioa:

Ettxean egindako eskema partekatu, komentatu, hobetu, zuzendu... denon artean.  
Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin.  
Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.

##### 4. saioa:

Gutuna: gutuna eta ofizioaren arteko desberdintasunez ohartarazi, gutunen osagaiak eta ezaugarriak azaldu eta ariketen bidez landu: zirriborroa, agurrak, erregistroa, estilo-aholkuak...  
Aberastasunari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.  
Etterako: gutun-eredu desegoki bat eman eta zuzendu.

##### 5. saioa:

Ettxean zuzendutako gutuna, guztion artean komentatu edota zuzendu.  
Zuzentasunean baloratzen denaren berri eman eta ariketen bidez landu.  
Aprobetxamendu-proba.  
Etterako: lehen eskola egunean egindako norbere iritzi-artikulua zuzendu.

##### 6. saioa:

Aprobetxamendu-probaren zuzenketa eta hobetzeko proposamenak.  
Lehen eskola egunean egindako idazmen-probaren irakaslearen zuzenketa eman, eurek egindakoarekin erkatzeko.  
Azken gomendioak eta birpasa ariketak.  
Balorazioa.

## 2. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

### EBALUAKETA

- **Ebaluaketaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketak jaso beharko du:** Ebaluaketa egiteko saioretan eskatuko diren ariketak eta azken moduluko testua neurtu eta baloratuko dira.

### IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazio inkesta

### ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

Bete beharreko baldintzak:

- %80ko bertaratzea
- Aprobetxamendu proba gainditzea

**145 €**

### PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.  
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.